

Lontxo Oihartzabal jn.  
Lehendakaria

05/11 IRIZPENA

Javier del Campo jn.  
Gaizka Gabantxo jn.  
Miren Izagirre and.  
J. Ramón Kortabitarte jn.  
Gonzalo Larruzea jn.  
Pedro Ochoa jn.  
Raimundo Rubio jn.  
Manu Udaondo jn.

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2005eko urriaren 13ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: *EAEko Ikastetxe Publikoetako Bigarren Hezkuntzako, Helduen Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Erdi Mailako Musika Kontserbatorioetako eta Arte Eskoletako lan kontratadunen eta irakasleen kidego zenbaitetako funtzionarioen lanpostu zerrendak onesten dituen dekretu proiektuari buruz.*

Eva Blanco and.  
Idazkari teknikoa.

### **SARRERA:**

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Euskadiko Eskola Kontseiluari eskatu dio lanpostu zerrendak onesten dituen dekretu proiektuari buruzko aginduzko txostena ahal denik lasterren eman dezan.

Halaber, ikastetxeetako zuzendariak egindako memoria eta Azterlan eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritzak emandako txostena igorri dizkio.

### **I.- AURREKARIAK**

Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak haxe dio 13. artikuluan: "Euskal Administrazio Publikoek bere barne-egiturak arrazoibideratu eta eratu, langileria beharrak finkatu, lanpostuetan jarduteko eskatutako baldintzak zehaztu eta horietako bakoitza sailkatzeko baliabidea dituzte lanpostu zerrendak". Ildo horretatik, 14.1 artikulua haxe jaso du: "lanpostu zerrendek aurrekontuetan diruz hornitutako lanpostu guztiak hartu beharko dituzte, funtzionarioentzat, lan-kontratupeko lanari finkoentzat eta behin-behingoentzat gordetakoak bereiziz".

Bestalde, Irakasle Kidegoen 2/1993 Legeak lanpostu zerrendak arautu eta berauek izan behar dituzten gutxieneko edukiak zehazten ditu, eta urtarriaren 18ko 6/2000 Dekretuak, 47/1993 Dekretua bigarrenetik aldatzen duenak, berriz, lanpostuen hizkuntza eskakizunak zehazteko irizpideak eta irakasle lanpostuetako aginduzko datak arautzen ditu (EHAA 00/01/20).

## II.- EDUKIA:

Dekretu proiektu honek sei artikulua, bost xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bat ditu. Artikuluetan aipaturiko eranskinak ere gehitu dira.

1. artikulua Errenteriako Zabalbide BHIa kentzen du.

2. artikulua 2005-06 ikasturteko honako LPZak onartzen ditu: lan kontratuko irakasleak, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko funtzionarioak (A taldea), Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoa (B taldea), eta "desagertzeko" egoeran dauden Irakaskuntza Ertainetako Institutu Teknikoetako Irakasle Berezien Kidegoa (B taldea). (I. eranskina).

3. artikulua, EAEko Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoari (A Taldea) dagokion 2005-06 ikasturteko LPZa onartzen du (II. Eranskina).

4. artikulua, Hizkuntza Eskola Ofizialetako lan kontratuko irakasleei eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen Kidegoko funtzionarioei (A Taldea) dagokien 2005-06 ikasturteko LPZa onartzen du (III. Eranskina).

5. artikulua, EAEko Erdi Mailako Musika Kontserbatorioetako lan kontratuko irakasleei eta Musika eta Arte Eszenikoko Irakasleen Kidegoko funtzionarioei (A Taldea) dagokien 2005-06 ikasturteko LPZa onartzen du (IV. Eranskina).

6. artikulua, EAEko Arte Eskoletako lan kontratuko irakasleei eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko Irakasleen Kidegoko funtzionarioei (A Taldea) dagokien 2005-06 ikasturteko LPZa onartzen du (V. Eranskina).

Lehen xedapen gehigarriak, gorago aipatutako kidego bakoitzari dagozkion osagarri espezifikoaren munta zehazten du. Bigarren xedapen gehigarriak, osagarri espezifikoan sartutako dedikazio bereziko osagarri bat zehazten du, irakasleek lehen gradua egiaztatuz gero jasoko dutena. Hirugarren xedapen gehigarriak zehazten du zuzendaritza lanetan aritzeak, ekainaren 26ko 177/1990 Dekretuan, unibertsitateaz kanpoko funtzionario irakasleen ordainariei buruzkoan, alegia, zehaztutako ordainketak jasotzeko eskubidea emango duela, halaber, horien zenbatekoa ere finkatzen du.

Laugarren xedapen gehigarriak, 1. hizkuntz eskakizuneko lanpostuak derrigortasun datarik gabekoak edo gainditutako derrigortasun datakoak izan daitezkeela zehazten du, eranskinetan jasotzen den bezala; 2. hizkuntz eskakizunekoak, aldiz, atzeratutako derrigortasun datakoak edo gainditutako derrigortasun datakoak izan daitezke.

Bosgarrenak zehazten du lekualdatze lehiaketaren bidez hornituko direla eranskinetan agertzen diren zerrendetako lanpostuak.

Xedapen indargabetzaileak indarrrik gabe uzten du urriaren 5eko 185/2004 Dekretua, aurreko ikasturteko LPZa onartzen zuena.

Azken xedapenak Dekretua indarrean noiz sartuko den zehazten du.

### **III. BALORAZIOAK ETA PROPOSAMENAK**

Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoko 2005-06 ikasturteko LPZa, 6.557 irakaslez osaturik dago, hauetarik 6.282 funtzionarioak dira eta gainerako 275ak lan kontratukoek betetzen dituzte.

Eta bat edo gehiago (DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa) ematen duten Bigarren Hezkuntzako institutuetan irakasten dute gehienek (6.047). Gainerakoetan, 226 Hizkuntza Eskola Ofizialetakoak dira, 136 HHEko zentroetakoak, 125 Erdi Mailako Musika Kontserbatorioetakoak eta beste 23ak Arte Eskoletakoak. Azken urteotako bilakaeran aldaketa gutxi agertzen da:

Bigarren Hezkuntzako kidegoen LPZaren banaketa lanpostuen arabera, funtzionario eta lan kontratuko kategorietan. Bilakaera 2002-03tik.

<i>Funtzionarioak:</i>	2002-03	2003-04	2004-05	2005-06
• Bigarren H. ikastetxeetako gela arruntetan. (B)	5.570	5.559	5.467	5.483
• Curriculum aniztasunerako geletan (B)	236	244	246	256
• Zereginen ikaskuntzako geletan (B)	50	50	50	50
• HHE zentroetan	120	120	121	123
• Urrutiko Oinarrizko Hezkuntzako zentroetan	12	13	13	13
• Urrutiko Batxilergoko Institutuetan (B)	39	41	41	41
• Hizkuntza Eskola Ofizialetan		236	236	217
• Erdi Mailako Musika kontserbatorioetan	388	79	80	87
• Arte Eskoletan		10	10	12
Funtzionarioak guztira		6.352	6.264	6.282
<i>Lan kontratukoak:</i>				
• Bigarren H. ikastetxeetako gela arruntetan. (B)	141	135	137	130
• Zereginen ikaskuntzako geletan (B)	1	1	1	0
• Hizkuntza Eskola Ofizialetan		11	11	9
• Erdi Mailako Musika kontserbatorioetan		47	47	38
• Arte Eskoletan		11	11	11
• Erlijio irakasleak (B)		0	86	87
Lan kontratukoak guztira		205	293	275
Bigarren hezkuntzako kidegoen LPZ guztira	6.557	6.557	6.557	6.557

(B) Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako lanpostuak

Zehazki, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako LPZak jaitziera garrantzitsua izan zuen duela bi urte eta harrezkero ez du ia aldaketarik izan. Zehazki, azkeneko ikasturte honetan, 19 lanpostu gehiago daude: Gipuzkoan 56 lanpostu gehiago eta Bizkaian eta Araban, berriz, 30 eta 7 gutxiago, hurrenez hurren.

Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako LPZaren banaketa lurraldeen arabera. Bilakaera 2002-03tik.

	2002-03	2003-04	2004-05	2005-06
Araba	811	811	821	814
Bizkaia	3.182	3.132	3.107	3.077
Gipuzkoa	2.177	2.087	2.100	2.156
EAE	6.170	6.030	6.028	6.047

LPZko lanpostuetako hizkuntza eskakizunak destinoko ikastetxe motaren arabera aztertuz gero, euskaldunenak Bigarren Hezkuntzakoak (%61,4 HE2) eta HHEkoak (%62,5) dira, bi hauetan gehikuntza %2,5 eta %2,8 izan da, hurrenez hurren. Gogorarazi behar dugu, dena dela, bi ikastetxe mota hauetan lanpostu parte bat maisu-maistren kidegoarentzat direla, hizkuntza eskakizun maila desberdinekin, LPZ honen irizpenean jasotzen den moduan.

Bigarren Hezkuntzako kidegoen LPZ destinoko ikastetxe motaren eta hizkuntza eskakizunen arabera. 2004-05 eta 2005-06.

Destinoa	2004-05			2005-06		
	Guztira	HE2	HE2 %	Guztira	HE2	HE2 %
Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak	6.028	3.558	%59,0	6.047	3.712	%61,4
HHE zentroak	134	80	%59,7	136	85	%62,5
Hizkuntza Eskola Ofizialak	247	98	%39,7	226	88	%38,9
Musika kontserbatorioak	127	39	%30,7	125	47	%37,6
Arte eskolak	21	0	%0,0	23	8	%34,8

Bigarren Hezkuntzako ikastetxe guztien artean, DBHa besterik ematen ez dutenetan %90,8 dira HE2ko lanpostuak, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan bezalatsu. Ikastetxeen Zuzendaritzaren mendeko DBHOko ikastetxeetan, berriz, %71,1 dira HE2ko lanpostuak, eta nabarmen gutxiago dira Lanbide Heziketakoetan, lanpostuen %32,7 alegia.

Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako LPZaren banaketa hizkuntza eskakizunen eta ikastetxe motaren arabera. 2005-06 ikasturtea.

	HE1 DG		HE1 indarrean		HE2		Guztira
DBH	65	%7,8	11	%1,3	754	%90,8	830
DBHO - lk. Zuzendaritza	935	%28,7	6	%0,2	2.317	%71,1	3.258
LH	1.316	%67,2	2	%0,1	641	%32,7	1.959
Bi. H.ko Ikastetxeak guztira	2.316	%38,3	19	%0,3	3.712	%61,4	6.047

Interesgarria da kopuruz egonkorra den lanpostu zerrenda hau, 19 lanpostutan gehitu dena, eta unitate edo ikasgela kopuruaren bilakaera alde-  
ratzea. Laburpen taulan ageri denez, DBHko 1. ziklokoak zertxobait gehitu  
dira (17), DBHko 2. ziklokoek berdin segitzen dute eta Batxilergokoak eta LH-  
koak, berriz, gutxitu egin dira, eta gehiago Batxilergokoak (30). Eranskineko  
1. taulan zehatz agertzen da ereduaren eta lurraldeen arabera.

Bigarren hezkuntza. Ikasleen eta ikasgelen bilakaera azken ikasturtean, etapen arabera.

<i>Etaparen zikloa</i>	<i>2004-05</i>		<i>2005-06</i>		<i>Aldakuntza</i>	
	<i>Ikasleak</i>	<i>Gelak</i>	<i>Ikasleak</i>	<i>Gelak</i>	<i>Ikasleak</i>	<i>Gelak</i>
DBH, 1. zikloa	15.271	805	15.523	822	252	17
DBH, 2. zikloa*	14.539	869	14.248	869	-291	0
Batxilergoa	17.430	674	16.591	644	-839	-30
ELH	6.520	441	6.182	430	-338	-11
GLH	8.598	560	7.926	530	-672	-30

(\*) 2005-06 ikasturtean, aniztasunerako 126 geletan 1.136 ikasle daude matrikulaturik. Gela-  
zein ikasleen kopuruak DBHko 2. zikloko laukitxoetan sartu ditugu.

Lanbide Heziketari dagokionean, balantzearen nondik norakoa alda-  
tzen duen zuzenketa bat egin behar dugu. Taula aztertuz gero, Lanbide Hezi-  
ketak 41 unitate galdu duela ondorioztatzen da. Aitzitik, zehaztu beharra  
dugu joan den ikasturtera arte Hezkuntza Sailean erregistraturik zeuden 6  
ikastetxe, guztira 59 unitate zituztenak, mendekotasun organikoaz aldatu di-  
rela, eta honek ez du esan nahi beste nonbait lanean jarri beharreko lanpostu  
soberakinik sortzen denik, izan ere, hango irakasleak ez zeuden lehendik ere  
Hezkuntza Sailean LPZan. Horrenbestez, aztergai dugun LPZaren egokitasuna  
baloratze aldera, mendekotasun administratiboaren gaia argitu ondoren, Lan-  
bide Heziketaren balantze orokorrean 18 unitate sortu dira.

Laburbilduz, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan ematen diren hiru  
etapetan (DBH bere osotasunean, Batxilergoa eta LH) izan den bilakaera kon-  
tuan hartuta, unitate sorkuntzaren balantzea ia hutsa da, beraz, datu hau bat  
dator LPZak ia aldaezin irautearekin.

Beste alde batetik, ez dugu ahaztu behar ikastetxe hauetarako irakas-  
leen beste iturria maisu-maistren LPZ dela. Dagokion irizpenean jasota dagoen  
bezala, kolektibo honek Bigarren Hezkuntzako ikastetxeei egindako ekarpena  
ikasturte honetan 77 lanpostu gutxiagokoa izan da, eta aurreko balantzean  
ageri den bezala, ez dute islarik izan Bigarren Hezkuntzako kidegoen LPZ or-  
ganikoan.

Hona hemen Kontseiluak hurrengo txostenean jorrazteko dituen  
gaiak: hizkuntza ereduak mailaz maila aldatu izanaren ondorioz etapa hauetan  
barrena lanpostuetako hizkuntza eskakizunek izan duten bilakaeraren azter-

keta, eta honek epe erdira izango dituen ondorioak pertsonalari buruzko politikan eta irakasleen gaitasunean oinarrituta ikastetxeko proiektu eleaniztun berriak zabaltzeko aukeretan.

Azken finean, egiten dugun balantzearen arabera, irizpena emateko helarazitako LPZ, dakigunaz, orekatua da eta beharren arabera da.

Bigarren Hezkuntzako LPZek irakasle kopuru egokiak jaso zituzten laguntza eta banaketa gelei dagokienez duela hamar bat urte hezkuntza erreforma aplikatzeko bultzada gisa, eta demografiaren bilakaerak lagundu du geroztik banako arreta hobea emateko aukera eskaintzen duten ikasle/ikasgelako ratio txikiak izaten.

Bi egoera, irakasleak zahartzea eta behin-behinekotasun maila handia, alegia, nabarmenduak izan dira beste batzuetan ere. Hauek aldatzera eramango gaituen prozesuak kontuan hartu beharko du Bigarren Hezkuntzako irakaslearen profila datozen hamarkadetarako, eta luzamendurik gabe planifikatu behar da, gai hauek, ordea, irizpen honen balorazio esparrutik at daude.

Estimatzen dugu Sailak izan duen prestasuna informazio zehatza eta beharrezko azalpenak ematerakoan, hurrengo lanetarako oso baliagarriak izango ditugu eta.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratu da.

Bilbo, 2.005eko urriaren 14

IDAZKARI TEKNIKOA,

Iz. : Eva Blanco

Ikus-onetsia

LEHENDAKARIA,

Iz. : Lontxo Oihartzabal

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILBURUA

ERNASKINA

1. taula. DBHO\* eskaintzen duten ikastetxeak. Unitate (gelak) kopuruaren aldakuntza 2004-05 ikasturtetik 2005-06ra igarotzean, etapan, hizkuntza ereduaren eta lurraldeen arabera.

	Lurral.	2004-05			2005-06			Azken ikasturteko bi-lakaera		
		A unit.	D unit.	Un.guz.	A unit.	D unit.	Un.guz.	A unit.	D unit.	Un.guz.
Batxilergoa	Araba	46	42	88	42	42	84	-4	0	-4
	Gip.	76	149	225	74	155	229	-2	6	+4
	Bizk.	183	178	361	152	179	331	-31	1	-30
	EAE	305	369	674	268	376	644	-37	7	-30
ELH	Araba	69	2	71	60	2	62	-9	0	-9
	Gip.	89	74	163	86	78	164	-3	4	-1
	Bizk.	181	26	207	173	31	204	-8	5	-3
	EAE	339	102	441	319	111	430	-20	9	-11
GLH	Araba	72	3	75	54	2	56	-18	-1	-19
	Gip.	145	78	223	134	84	218	-11	6	-5
	Bizk.	240	22	262	228	28	256	-12	6	-6
	EAE	457	103	560	416	114	530	-41	11	-30
DBHO*guzt.	Araba	187	47	234	156	46	202	-31	-1	-32
	Gip.	310	301	611	294	317	611	-16	16	-2
	Bizk.	604	226	830	553	238	791	-51	12	-39
	EAE	1.101	574	1.675	1003	601	1604	-98	27	-71

(\*) Ez ditugu sartu zereginen ikaskuntzako gelak.

2. taula. 2005-06 ikasturtean Hezkuntza Sailaren erregistroan agertzeari utzi dioten LHko ikastetxeen zerrenda, eta 2004-05eko unitateak.

Ikaste-txe Ko-dea	Herria	Izena	Erdi Maila (unitateak)		Goi Maila (unitateak)		Batxilergoa	
			A	D	A	D	A	D
10108	Gasteiz	Arkauteko nekazaritza eskola	2	0	2	0	0	0
10201	Laudio	Laudioko udal BHla	10	0	14	0	4	0
12040	Zizurkil	Nekazal Eskola	2	2	2	0	0	0
12151	Pasaia	Itsas Arrantza BHla	3	0	4	0	0	0
14601	Bermeo	Itsas Arrantza	4	0	2	0	0	0
14949	Derio	Nekazaritza Eskola	4	0	4	0	0	0
DESGERTUTAKO LANPOSTUAK GUZTIRA			25	2	28	0	4	0